




OTSAILAK 1
KURSAAL JAUREGIA. DONOSTIA

**GIZARTE
EKONOMIA
EUSKADIN
JARDUNALDIA**

**JORNADA DE
ECONOMÍA
SOCIAL
EN EUSKADI**

1 DE FEBRERO
PALACIO KURSAAL. SAN SEBASTIÁN



EGITARAUA

- 10:00** Akreditazioak jasotzea
- 10:15** TESS proiektuaren eta bazkideen aurkezpena
Luis Maria Gallo, ANELeko Presidentea
Stéphane Montuzet, CRESS AQUITAINEko Zuzendaritza Batzordeko kidea
Javier Goienetxea, KONFEKOOPEko Presidentea
- 10:30** Euskadiko Gizarte Ekonomiako erakundeen aurkezpena
Felipe Yarritu
Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomia eta EGE Zuzendaria
- 11:00** Gizarte Ekonomia Euskadin
Baleren Bakaikoa
GEEB - Gizarte Ekonomiako Euskal Behatokiko Presidentea
- 11:45** Kafea
- 12:15** Gizarte Ekonomia eta Gizarte Ekonomiako Legea
Juan Antonio Pedreño
CEPES - Gizarte Ekonomiako Espainiako Enpresen Konfederazioko Presidentea
- 13:00** Manifestuaren irakurketa
- 13:15** Amaiera-ekitaldia
Gemma Zabaleta
Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailburua

Gizartea Ekonomia eta Ekonomia Solidarioaren mugaz gaindiko sarea, TESS proiektua izenekoa, lankidetzarako ekimena da ekonomia sozialaren papera sendotzeko gizarte eta ekonomia garapenean Nafarroa, Euskadi eta Akitaniako mugaz haraindiko lurraldean.

Hiru bazkideren eskutik sortu da sarea: ANEL - Nafarroako Lan-enpresen Elkarte, proiektuaren liderra dena, KONFEKOOP, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa; eta CRESS Aquitaine, Akitaniako Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioaren Eskualde-ganbera.

TESS proiektuak abian jarri du lan egonkorreko dinamika bat ekonomia sozialaren erakundeen artean eredu ekonomiko parte-hartzaileago, berritzaileago eta humanoago batean sakontzeko; horren azken helburua da enplegu egonkorra eta kalitatekoa sortzea.

Espainia-Frantzia-Andorra 2007-2013 Lurralde Lankidetzako Programan sartuta dago TESS.

HELBURUAK

Ekonomia sozialaren papera sendotzea gizarte eta ekonomia garapenean Nafarroa, Euskadi eta Akitaniako mugaz haraindiko lurraldean.

Espero den emaitza: ekonomia soziala gehiago ikusaraztea eta ezagutaraztea mugaz haraindiko lurraldean, eragin handiagoa izan dezan gizartean krisi ekonomikoa dagoen garai honetan.

Abian jartzea etengabeko lanaren dinamika bat ekonomia sozialaren mugaz haraindiko lurraldeko erakundeen artean.

Espero den emaitza: Sortutako sinergien ezagutza eta aprobetxamendu hobea eta handiagoa.

Ekonomia soziala gehiago ikusaraztea mugaz haraindiko lurraldean.

Espero den emaitza: Ekonomia sozialaren erakundeek egiten dituzten jarduerak gehiago ezagutaraztea.

Ekonomia soziala bultzatzea laneratzeko mekanismo eraginkor bezala, baita kalitateko enplegua sortzeko ere.

Espero den emaitza: Enplegu iturri berriak sortzeko eta/edo sendotzeko aukera ematen duen esperientzia pilotuak aztertzea eta garatzea.

EKINTZAK

1. Lurraldeetako bakoitzean Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioaren egoera aztertzea, errealitateetako bakoitza eta bere eragileak hobeto ezagutzeko. Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioaren mugaz gaindiko Behatokia garatzea.
2. Esperientziak elkartrukatzea, internet bidez zabalduko diren Jardunbide Egokien fitxen bitartez, zein Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioaren eragileentzako azterketa-bisita eta lan-tailerren bidez.
3. Proiektu-pilotuak garatzea, Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioaren sektore osoarentzat eredugarri diren jardunbide egokiak lurralde batetik bestera transferitzeko.
4. Lurralde bakoitzeko Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioaren eragileek zein sareak berak egindako lanei buruzko informazioa webgunearen bidez zabaltzea.

ANEL, Nafarroako Lan-enpresen Elkarte TESS mugaz gaindiko sarearen garapenaren buruan dagoen elkarte da. Bere bazkide diren enpresetatik haratago, Gizarte Ekonomia osoarentzako proiektua dauka, eredu ekonomiko horren zabalpen eta hazkundean laguntzeko helburuarekin.

1982an sortu zenetik, ANELek Gizarte Ekonomiako enpresak bildu eta ordezkatzeko ditu. Kapital Sozialaren zati handiena langileen esku daukaten enpresak dira, eta langile gehienak enpresako bazkideak dira.

2010eko urte amaieran, 3.689 lanpostu dituzten 183 enpresa ziren ANELen bazkide, hala lan-sozietate anonimoak eta lan-sozietate mugatuak nola lan-elkarteen kooperatibak.

EKINTZAK

Instituzioetan Gizarte Ekonomia sustatzea eta enpresa berriak sortzeko laguntza ematea dira bere lan-ildo nagusiak. Gauzak horrela, 2010ean, 67 pertsona taldek enpresa-proiektu berriei buruzko informazioa eskatu zioten ANELi, eta 22 ekintzailek euren helburuak bete zituzten. Horren ondorioz, 97 lanpostu berri sortu ziren. Hortaz, ANELen aurkeztu ziren hiru negozio-proiektutatik bat enpresa bihurtu zen, bideragarritasun-plan zorrotz bat abiapuntu hartuta.

Halaber, ANEL ahalegin handia egiten ari da krisiak jotako enpresak desagertu ez daitezen. Ildo horretatik, 15 langile-talderi arreta eskaini zitzaizen birmoldatze eta eraldatze-prozesuak aztertze, eta horietako lauk arrakastaz bete dute prozesua.

Horrez gain, ANELek Gizarte Ekonomiako enpresak garatzeko laguntza eskaintzen du, eta besteak beste, kudeaketa-prozesuetan etengabeko berrikuntza sustatzen du, hausnarketa estrategikoa, enpresa-lankidetzak, nazioartekotzea eta gisako alderdiei arreta berezia eskainita.

ANEL beste hainbat erakunderekin lankidetzan aritzen da, eta Gizarte Ekonomia eta enplegua eta ekonomiarekin zerikusia daukaten hainbat forotan parte hartzen du, besteak beste, CEPES, COCETA, CEPES Nafarroa, EGK Nafarroa, EGK Tuterako, Kooperatiben Kontseilua, Fundación Navarra para la Diversificación, Fundación Navarra para la Excelencia, Merkataritzaganbera, CEIN eta Start Up-en.

Prestakuntza da nabarmendu beharreko beste alderdietako bat. Hona adibide bat: 2010ean, Elkarteak 75 langabetu lan-munduan aritzeko prestatu zituen enplegu-ibilbideetan, eta 20 emakume trebatu zituen Pertsonen Arretarako, Laneratze-proiektuen bidez. Horrez gain, 1.308 ikasleren parte-hartzea izan zuten 80 ikastaro eskaini zituen.

HARREMANA

jevajimeno@anel.es

Río Alzania, 29 - 1.

31006 Iruñea

T. +34 948 240 400 / +34 948 292 234

CRESS Aquitaine- Akitaniako Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioaren Eskualde-ganbera Akitania eskualdeko gizarte-ekonomia eta ekonomia solidarioaren esparruan lan egiten duten eragileak biltzen ditu: elkarteak, kooperatibak, mutualitateak eta fundazioak. Hirurogei elkarte inguru dira bere bazkideak, hainbat sektoretan aritzen direnak: osasuna, gizarte-esparrua, hezkuntza, bankuak, aseguruak...

Erakunde horien artean elkarte, mutualitate eta kooperatiben sare nagusiak daude, bai eta federazio edo sareen barruan ez dauden beste zenbait erakunde ere.

CRESS Aquitaineren bulegoetako bat Bordeleтик gertu dago, eta bestea TESS sarearekin lotuta dago, Pirinio Atlantikoetan.

Gizarte Ekonomia Eskualde-ganberen Kontseilu Nazionalan (CNCRES) federatutako hogeita sei CRESS daude Frantzian.

Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioa Frantzian:

- 217.000 saltoki
- Enplegatuen % 10, hau da, 2,3 milioi gizon eta emakume
- 55.000 euro banatuta urtero soldatetan.

Gizarte Ekonomia Pirinio Atlantikoetan:

- 2.704 saltoki
- Enplegu guztien % 12,3, sektore pribatuko langileen % 16 (enplegu publikoak zenbatu gabe)

HELBURUAK

CRESS Aquitainek elkartasuna eta kudeaketa-sistema demokratikoak sustatzeko konpromisoa hartu du, hiru helburu nagusirekin:

- Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioa egituratu eta ordezkatzea
- Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioaren barruko enpresa eta sektoreen garapena bultzatzea
- Eragileei, agintaritzak publikoei, hedabideei eta herritar orori Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioaren berri ematea.

Eskualdeko gizarte-ekonomia eta ekonomia solidarioaren inguruko baliabide-zentroaren izaera bere egin du CRESS Aquitainek. Gizarte Ekonomia eta Ekonomia Solidarioaren errealtatearen gaineko kontzientzia areagotzeko azterketak egiten ditu.

CRESS Aquitainek urtero koordinatzen du, CN-CRESen laguntzarekin, "ESSren Hila" izeneko komunikazio-ekitaldia. Gizarte Ekonomiaren eta Ekonomia Solidarioaren eragile guztiek hiritarrei zuzendutako ekitaldiak antolatzen dituzte, euren balioak ezagutzera eman eta ekonomian duten eginkizuna jakinarazteko.

2011n, 1.600 ekitaldi antolatu ziren nazio-mailan, horietako 70 Akitanian.

HARREMANA

[cress.anglet@orange.fr]
Aritxageko errepidia, 46
64600 Angelu
T. 00 33 6 86 23 30 91

KONFEKOOP - Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa Euskadiko kooperatiba guztiak ordezkatzen dituen erakundea da. 1996an sortu zen, Euskal Kooperatiben Mugimenduaren garrantzia ekonomiko eta soziala aintzat hartuta, hura sendotzeko beharrari aurre egiteko. Euskadin dauden Federazio Sektorial guztiak barne hartzen ditu:

- EKKF - Euskadiko Kontsumo Kooperatiben Federazioa (1988).
- ENKF - Euskadiko Nekazaritza-elikagaien Kooperatiben Federazioa (1989).
- EGKF - Euskadiko Garraiolarien Kooperatiben Federazioa (1992).
- ERKIDE - Euskadiko Lan-elkarte, Irakaskuntza eta Kreditu Kooperatiben Federazioa (2006).

Gaur egun, Konfekoop 900 Kooperatiba baino gehiagoren ordezkarria da. Kooperatiba horiek 55.700 langile dituzte Euskadin, eta horietako 38.475 lan-bazkideak dira.

NAK, Nazioarteko Kooperatiba Aliantzaren printzipio kooperatiboak:

1. Borondatezko atxikimendu irekia.
2. Kideen kudeaketa demokratikoa.
3. Kideen parte-hartze ekonomikoa.
4. Autonomia eta independentzia.
5. Hezkuntza, entrenamendua eta informazioa.
6. Kooperatiben arteko lankidetzak.
7. Konpromisoa komunitatearekin.

HELBURUAK

Ondoko hauek dira KONFEKOOPen helburuak:

- Euskadiko Kooperatibak sustatzea eta instituzioen aurrean ordezkatzea.
- Kooperatiben sustapena eta prestakuntza bultzatzea, zuzenean edo federazioaren bidez egindako ekintza egokiekin.
- Kooperatibentzat egokiak diren erakunde, instituzio edo jarduerak sustatzea.
- Bazkideentzako zerbitzu komunak antolatzea.
- Elkar-lankidetzak harremanak bultzatzea.
- Kooperatiben Mugimenduaren zabalkundea sustatzea.
- Federazioen artean sortzen diren gatazketan esku-hartzea, bitartekotza eta adiskidetzeko prozeduren bitartez.
- Kooperatibei eragiten dieten gaien buruzko txostenak, ebazpenak, irizpenak edo proposamenak prestatzea, eta Kooperatiben Mugimenduarentzat lagungarri gerta daitekeen beste edozein eginkizun betetzea.

HARREMANA

jekek@konfekoop.coop
Nafarroako Errege-Erreginak, 49
01013 Vitoria-Gasteiz
T. 945 122 053 • F. 945 253 959

ASLE Euskadiko Lan-elkarteen Taldea da. 1982an sortu zen, eta Lan-enpresen Patronalaren eginkizunak bete eta Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkatzen ditu.

Lan-elkarteak defendatu, sendotu, sustatu eta garatzen laguntzea dira bere xedeak. Horretarako, Etengabeko Hobekuntza ardatz hartuta, enpresei zerbitzuak eskaintzen dizkie, eta pertsona konprometituek enpresa horiei laguntzen diete lehiakortasun iraunkorra lortzeko. Giza garapena eta enpresa-garapenaren arteko oreka lortzea da helburua, horixe baita Lan-sozietateen izateko arrazoia.

Gaur egun 309 lan-sozietate biltzen ditu, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden Lan-sozietateen %38. 7.110 langile dituzte, Euskadiko Lan-sozietateetako langileen %78,44.

Ondoko hauek dira bazkide diren enpresei eskaintzen zaizkien zerbitzuak:

1. Aholkularitza:

- Juridikoa - Laneko segurtasun eta osasuna
- Ekonomikoa - Ingurumena
- Laguntzak eta Diru-laguntzak

2. Informazioa, Zirkularrak eta Jardunaldi teknikoak.

3. Ordezkaritza instituzionala.

4. Enpresa bazkideei laguntzeko lankidetzaz-hitzarmenak finantza-entitate, gizarte-erakunde eta administrazioko sailekin.

5. ATEGI Erosketa-zentrala.

6. Etengabeko prestakuntza.

7. Administrazio-kontseiluentzako laguntza.

ILDO ESTRATEGIKOAK

Hona hemen 2010-2012 Plan Estrategikoan aurreikusitako ildo estrategikoak:

1. ASLEren errentagarritasuna bermatzea.
2. Ordezgarritasuna indartzea.
3. Lan-sozietatearen figura defendatzea.
4. Bazkide diren enpresei lehiakortasuna hobetzen laguntzea.
5. Bazkide diren enpresak ASLEekin pozik egon daitezen lortzea.
6. ASLEn gizarte-kohesiorik handiena lortzea.
7. Kapital sozialean parte hartzen duten pertsonen osaturiko enpresen erreferente izatea gizartean.
8. Berrikuntza kudeatzea.
9. Gizarte-erantzukizunez jokatzeko duen erakunde gisa sendotzea

HARREMANA

[\[asle@asle.es\]](mailto:asle@asle.es)

Ercilla, 3 - Bajo

48009 Bilbao

T. 94 435 47 30

[\[asle-ss@asle.es\]](mailto:asle-ss@asle.es)

Pº Árbol de Gernika, 24 Bajo

20006 Donostia-San Sebastián

T. 943 44 58 69

[\[asle-vi@asle.es\]](mailto:asle-vi@asle.es)

Pedro Asúa, 57 Bajo

01008 Vitoria-Gasteiz

T. 945 21 41 25

EHLABE - Euskal Herriko Lan Babestuaren Elkarte. Zazpi erakundek osatzen dute, industria eta zerbitzuen arloko jarduera ugari garatzen dituztenak. Erakundeok guztira 100 lantoki eta ezgaitasunak dituzten 8.000 langile baino gehiago dituzte Euskal Autonomia Erki-degoan. Bertan egiten diren enplegu berezi eta langintza eta trebakuntza-programa ia guztiak bere esku daude.

ARABA - Indesa, RAEP

BIZKAIA - Lantegi Batuak Fundazioa, Usoa Lantegia, Ranzari Lantegia

GIPUZKOA - Gureak Taldea, Katea - Legaia

HELBURUAK

XEDEA

EHLABEko erakundeek ezgaituentzako **lan-aukerak sortzea** dute helburu, pertsona horien gizarteratzea eta garapen pertsonal eta profesionala lortzeko; izan ere, lana gizartean eta lan-munduan parte-hartzeko tresna dela ulertzen baitute.

EHLABE osatzen duten erakundeak:

- Erakunde dinamikoko eta sustatzaileak dira, eta jarduera lehiakor eta kudeaketa profesionalen bidez merkatuari balioa erantzen diote.
- **Irabazi asmorik gabeko** erakundeak dira. Etekinak proiektuaren garapenean inbertitzen dituzte, iraunkortasuna helburu.
- Sarean lan egiten duten erakunde irekiak dira.
- Administrazio Publikoa Politika Aktiboak garatzeko laguntzaileak da haientzat.
- Eta sektoreko beste eragileak euren jarduera garatzeko aliatuak dira, eta haiekin sinergiak bilatu eta sareak sortzen dituzte

IKUSPEGIA

Gizartearen ikuspegi eraldatzailea du EHLABE, eta aukera-berdintasunaren bila dabil, aberastasuna eta baliabideak sortzen dituzten jarduera lehiakorrek garatzeko, eta horrenbestez, ehun ekonomikoaren beharriaz erantzun eta proiektuaren iraunkortasuna bilatzeko.

EHLABEko enpresek ezgaitasunak dituzten pertsonen lan-arloko ikasketa eta trebakuntza-beharretara egokituriko prestakuntza-arloko metodologia eta tresnak prestatzen dituzte.

Horrez gain, eskaintzen dituzten zerbitzuen eta industria-jarduerekin zerrندان espezialitate ugari dute lekua, prestakuntza zein ekoizpen-arlokoak.

HARREMANA

ehlabe@ehlabe.org

Epele Bailara, 35

20120 Hernani

T. 943 346 224

Gizatea, Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkarte 2007ko azaroan jaio zen, eta gaur egun 44 enpresek osatzen dute elkarte. 2010ean, 1.204 laguni eman zion lana (630 gizarteratze eta laneratzeko-prozesuetan), eta 25 milioi eurotik gorako diru-sarrerak izan zituen.

Laneratzeko enpresen araudiak horrela dio: “desabantaila sozial edo bazterketa egoeran dauden kolektiboak laneratzeko helburu duten ondasunen edo zerbitzuen ekoizpen-egiturak dira. Horretarako, laneratzeko proiektu pertsonalak garatu behar dituzte, ikasketa-prozesu egoki baten bidez, lan eta gizarte-erloto trebetasunak, oinarritzko prestakuntza, lan-trebakuntza eta merkatuaren gaineko ezagutza eskuratzeko helburuarekin, pertsona horien lanerako aukerak hobetu daitezten”.

HELBURUAK

Gizarte bidezkoago baten zerbitzura egongo den ekonomia solidarioaren garapenean laguntzea da Gizatearen xedea. Horretarako, laneratzeko enpresak sustatuko ditu, gizarte-bazterketa arriskuan edo egoera horretan dauden pertsonentzat lan-merkatura sartzeko aukerak sortzen dituzten tresnak diren heinean.

Laneratzeko enpresen erronkei modu kolektibo eta eraginkorrean aurre egiteko lanean ari da Gizatea. Helburu horrekin, enpresen arteko lankidetzak sustatu, sektorearen hobekuntza eta sendotzea bultzatu eta sektore hori instituzio publikoetan, gizarte-eragileen artean eta gizarte-oro har ezagutzera emateko eta haiekin harremanak izateko lan egiten du.

Hona hemen Gizatearen lan-ildoak:

- Laneratzeko enpresak indartzeko zerbitzuak (prestakuntza, enpresa-kudeaketarako zein gizarte-laguntzarako lan-tresnak sortzea, balantza soziala txertatzea, etika-kodea, etab.).
- Zabalkunde soziala (argitalpenak, jardunaldiak, etab.).
- Laneratzeko enpresen ondasun eta zerbitzuak merkaturatzeko laguntza, merkatuaren erreserba sustatzea eta kontratazio publikoetan klausula sozialak jasotzeko lan egitea barne.
- Instituzio publikoekin ondoko arloen inguruan hitz egitea: gizarte-ekonomia eta ekonomia solidarioa, gizarte-politika, enplegua eta gizarteratzea.
- Beste erakunde batzuekin, mugimendu eta herritarren sareekin, unibertsitate eta ikerketa-zentroekin, hedabideekin eta beste hainbatekin harremanak izatea.

HARREMANA

[\[gizatea@gizatea.net\]](mailto:gizatea@gizatea.net)
Ekain Koben kalea, 3-1.
48005 Bilbo
T. 944 160 566

FUNKO, Fundazioen Euskal Konfederazioa hainbat fundaziotako hamar lagunen ekime-
nez sortu zen, ahaleginak bateratzeko aukerari buruz hausnartu ondoren. Eusko Jaurlaritzak
berariazko legedia dauka, eta horren ondorioz, euskal fundazioen errealitatea eta estatuko-
na ez datoz bat.

Hori horrela izanik, euskal fundazioak elkartzeko eta lankidetzan aritzeko plataforma izango
zen elkartea eratzea erabaki zuten, intereseko jarduerak garatzeko, kideen arteko harremana
errazteko, eta lan taldeak, jardunaldiak eta beste proiektu sektorial batzuk sortzeko.

Konfederazioa 2003ko apirilaren 1ean eratu zen, Donostiako Kurtaal jauregian. Fundazioak
elkartzeko eta lankidetzan aritzeko lekua izatea du helburu, eta sektorearen interesen aldeko
ahots propioa dauka, jarrera pluralista batean oinarrituz, botere publikoekin hitz egiteko.

HELBURUAK

Ondoko hauek dira Elkartearen helburu nagusiak:

- Fundazioak elkartzeko eta lankidetzan aritzeko bidea eta lekua izatea, sektorearen intere-
sen aldeko gure ahotsa, jarrera pluralista batean oinarrituz, botere publikoekin hitz egiteko.
- Fundazioen sektorea ordezkatzea, eta beste eragile batzuekin hitz egitea, sektorearen inte-
resak defendatzeko, betiere lankidetzan eta elkartasunean oinarrituz.
- Elkartutako fundazioen baterako estrategiak elkarren artean zehaztea, fundazioaren jardue-
rak hobeto garatzeko.
- Pluraltasunean oinarrituz, fundazioen parte-hartze handia eta ahal bezainbesteko afiliazioa
lortzea.
- Baterako hausnarketa egiteko, sektorearen aldeko erabakiak hartzeko, eta administrazio
publikoetan -foru, erkidego, estatu eta Europakoetan- horien ordezkari izateko baliabide
izatea.
- Fundazioen interes komunei erantzuten dieten sektoreko proiektuak eta ekimenak bultza-
tea eta koordinatzea.
- Fundazioak sortu daitezten lan egitea, gizarte zibilaren adierazpen-tresnak diren heinean.

HARREMANA

[\[info@funko.es\]](mailto:info@funko.es)

Vicente Goikoetxea, 1 Behea, 4. Bul.

01008 Vitoria-Gasteiz

T. 945 148 490 • F. 945 143 064

REAS Euskadi - Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea 1997an sortu zen, eta gaur egun Ekonomia Solidarioaren Gutuneko printzipioekin bat egiten duten 45 enpresa eta erakundek osatzen dute. Hona hemen printzipio horiek: berdintasuna, enplegua, ingurumena, lankidetzeta, irabazi asmorik eza eta inguruarekiko lankidetzeta (<http://www.economiasolidaria.org/carta.php>). 2010ean, 1.476 lanpostu sortu zituzten (lanaldi osoetan kontatuak), eta 71 milioi eurotik gorako diru-sarrerak izan zituzten.

Esparru horretan ondoko hauek guztiak sartzen dira: ekonomia solidarioa oinarri duten enpresak (laneratze-enpresak, gizarte-ekimeneko kooperatibak eta beste merkataritza-sozietate batzuk), jarduera ekonomikoa helburu sozialekin garatzen duten elkarte eta fundazioak, bidezko merkataritza, merkataritza solidarioa edota ekologikoa sustatzen duten ekimenak, finantza solidarioak eta banku etikoak...

HELBURUAK

Ondoko hau da REAS Euskadiren xedea: ekonomia solidarioa garatzea, ekonomiaren alderdi guztiak (ekoizpena, finantzaketa, merkataritza eta kontsumoa) norberaren eta komunitatearen garapenaren zerbitzura egon behar dutela aldarrikatzen duen ikuspegi eta praktika gisa ulertuta ekonomia solidario hori. Gauzak horrela, ekonomia eredu nagusiarentzako alternatibak proposatzen ditu. Hartara, gizarte-eraldaketarako tresna bat da, eta parte-hartzea ahalbidetzen duen garapen bidezko eta iraunkorra bultzatzen du.

Ekonomia solidarioa eta Euskadiko enpresa solidarioak ahalik eta gehien indartu eta ezagutzera emateko lan egiten du REAS Euskadik. Horretarako, ekonomian alternatiba eraldatzaileak eragingo dituzten esperientzia eta tresnak bultzatzeko ahalegina egiten du.

Hona hemen REAS Euskadiren lan-ildoak:

- Herritarren sentsibilizazioa eta ekonomia alternatibo eta solidarioaren sustapena.
- Barne eta kanpo trebakuntza.
- Ekonomia solidarioa oinarri duten enpresak sortzeko laguntza-zerbitzuak.
- Ikerketak eta argitalpenak.
- Gizarte merkatuak eraikitzeko zerbitzuak.
- Gizarte Aholkularitzako tresnen sorrera eta ezarpena.
- Finantza-tresna solidarioen babesa eta zabalpena, eta FIARE Banku Etikoaren proiektuaren garapena.
- Erosketa publiko arduratsuaren sustapena.
- Harremanak instituzio publikoekin.
- Harremanak beste erakunde batzuekin, mugimendu eta herritarren sareekin, unibertsitate eta ikerketa-zentroekin, hedabideekin eta beste hainbatekin.

HARREMANA

[\[reaseuskadi@reaseuskadi.net\]](mailto:reaseuskadi@reaseuskadi.net)

Ekain Koben kalea, 3-1.

48005 Bilbo

T. 944 160 566

GEEB - Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokia, EHU - Euskal Herriko Unibertsitateko GEZKI – Gizarte Ekonomiaren eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutuaren barruan sortu zen, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomia eta Enpresen Gizarte Erantzukizunaren zuzendaritzaren laguntzarekin, Euskal Gizarte Ekonomia identifikatu, kuantifikatu eta ikusarazteko helburuarekin. Helburu nagusi hori lortzeko, GEEBk ondoko lan-esparruak jorratzen ditu:

- Arlo Funtzional Sozioekonomikoa: datu sozioekonomikoak etengabe bildu, landu eta argitaratzea.
- Arlo Funtzional Juridiko-Politikoa: esparru juridikotik eta politika publikoetatik Gizarte Ekonomiaren edozein eragilerengan eragina izan dezaketen araudi eta ekimenen jarraipena egitea.
- Arlo Funtzional Zientifiko Akademikoa: hezkuntzaren/unibertsitatearen esparrutik aldizka azterketak, txostenak eta argitalpenak prestatzea.

Baina horrez gain, GEEBk buletin bat argitaratzen du hamabostero, sektoreko albiste garrantzitsuenekin, Gizarte Ekonomia indartu eta ezagutzera emateko tresna garrantzitsua baita hori.

Azkenik, Euskal Gizarte Ekonomiaren Foro bat garatzen ari da, Gizarte Ekonomiako eragile guztien arteko topagune bat sortzeko helburuarekin. Ildo horretatik, gaur egun Euskal Gizarte Ekonomiako hainbat eragile adierazgarriren parte-hartzea daukan Aholku-batzorde bat indarrean dago. Hona hemen hura osatzen duten eragileak: ASLE-Euskadiko Lan-sozietateen Elkarteak, EHLABE-Euskal Herriko Lan Babestuen Elkarteak, GIZATEA-Gizarteratzeko eta Lan-eratzeko Euskadiko Enpresen Elkarteak, KONFEKOOP-Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa eta REAS Euskadi-Euskadiko Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea. Eragile garrantzitsuak falta direla agerikoa da, besteak beste unibertsitateak, baina hori konpontzeko lanean ari gara dagoeneko.

HELBURUAK

Euskadiko Autonomia Erkidegoko Gizarte Ekonomia osoak garatutako jardura identifikatu eta neurtzeko dagoen beharrari erantzutea da helburu nagusia. Horretarako, analisi-eremua mugatzea proposatzen da, horren kontzeptu operatiboa aintzat hartuta.

HARREMANA

[tecnico.observatorio.gezki@ehu.es]
[gezki.behatoki.teknikaria@ehu.es]

Carlos Santamaria Zentroa
Elhuyar plaza, 2 • A6 Bulegoa
20018 Donostia - Gipuzkoa
T. 943 017 462

1992an sortu zen **Espainiako Gizarte Ekonomiaren Enpresa-konfederazioa (CEPES)** estatuko enpresa-konfederazio bat da. Sektore arteko bere izaera dela-eta, Espainian Gizarte Ekonomiak daukan ordezkari-tza gorenarekin, eta beraz, botere publikoekin elkarrekin instituzionalerako plataforma egokia.

CEPES, Gizarte Ekonomiaren kontzeptuaren dauden ekonomia-jarduerak desberdinak biltzen dituen erakundea da, eta 29 erakunde osatzen ditu. Estatu edo erkidegoko konfederazio eta enpresa-talde espezifikoak dira horiek denak, Kooperatiba, Lan-sozietate, Mutualitate, Laneratze-enpresa, Enpleguko Zentro Berezi, Arrantzaleen Kofradia eta Ezgaitasunen Sektoreko Elkartearen interesen ordezkariak, erkidegoetan 200 laguntza-egituratik gora dituztenak.

BPGaren % 10 ordezkatzeko du, 86.000 milioi eurotik gorako fakturazioarekin, eta ondoko hauen interesak defendatzen ditu:

- 44.600 enpresa baino gehiago.
- 2.350.000 lanpostu baino gehiago.
- 12.000.000 bazkide baino gehiago.

HELBURUAK

- Gizarte Ekonomia sustatu eta defendatzea.
- Politika Publikoen sorreran eta estatuko eta nazioarteko legerian eragitea.
- Herrialdearen garapen ekonomikoa bultzatzea.
- Gizartearen eta enpresen esparruan gizartearekin arduratsua den eta balio zehatz batzuk dituen enpresa egiteko modu bat zabalitzea.
- Gizartearen eta Administrazioaren zein Europako eta nazioarteko instituzioetan bazkide diren erakundearen interes komunak ezagutzera ematea eta defendatzea.
- Gizarte Ekonomiaren interesak Estatuko eta Europar Batasuneko instantzia guztietan ezagutzera ematea eta defendatzea, alderdi ekonomiko, sozial, kultural edo politikoetan.
- Gizarte Ekonomiaren erakunde guztiek modu generikoan komunean dituzten arazo guztiak aztertzea, kasuan kasuko irtenbideak adostea, eta batera aritzeko ildoak ezartzea.
- Gizarte Ekonomiako erakundeek eskatzen dituzten zerbitzuak (denon interesekoak ala espezifikoak) ezartzea eta erraztea.
- Enpresa kudeatzeko metodo eta teknikan aurrerapena sustatzea, batez ere ikerketa, informazioa eta prestakuntzaren bidez.

HARREMANA

[\[info@cep.es\]](mailto:info@cep.es)

Vallehermoso 15, 1. solairua
28015 Madrid

T. 91 593 04 12 • F. 91 448 73 93



TESS

RED TRANSFRONTERIZA
DE LA ECONOMÍA SOCIAL Y SOLIDARIA
GIZARTE EKONOMIA ETA EKONOMIA
SOLIDARIOAREN MUGAZ GAINDIKO SAREA.
RÉSEAU TRANSFRONTALIER DE
L'ÉCONOMIE SOCIALE ET SOLIDAIRE



KONFEKOOP
Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa
Confederación de Cooperativas de Euskadi



Europar Batasunak parte hartu du. FEDER funtsak kofinantzatu du
Con la participación de la Unión Europea. Proyecto cofinanciado por FEDER



Kofinantzatu duten beste entitate batzuk
Entidades cofinanciadoras

